

Ordizian, 2016ko urtarrilaren 11n, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran, honakoak bertaratu ziren:

#### BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA: José Miguel Santamaría Ezeiza.

#### BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras  
Igor Eguren Izagirre  
Mila Sukia Galparsoro  
Iñaki Dubreuil Churruca jauna

EAJ/PNV  
Ordiziako EH-Bildu  
Ordizia Orain  
PSE-EE (PSOE)

Carlos Gonzalez Astiz gonbidatu gisa etorri da.

#### BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK:

#### IDAZKARIA:

Iker Rocandio Etxeberria

#### INKORPORAZIOAK ETA AUSENTZIAK

Angelica Moreno Heras. 3.puntuan etorri da.

#### AZTERTUTAKO GAIAK

- 1.- 2015eko azaroaren 16ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 2015eko azaroaren 23ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 3.- fakturak.
- 4.- Urtezahar-gauean izandako kalteak.
- 5.- Hondakinen kudeaketa.

#### ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:26

AMAIERA ORDUA: 17:00



Lehendakari jaunak eman dio hasiera saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2015eko azaroaren 16ko ohiko bilkurako akta onartzea.

Aho batez onartu da.



2.- 2015eko azaroaren 23ko ohiko bilkurako akta onartzea.

Aho batez onartu da.



3.- fakturak.

Jakinaren gainean



4.- Urtezahar-gauean izandako kalteak.

Dubreuil

Idatzi bat aurkeztu dut erregistroan horren inguruko informazioa eman diezadaten. Horrekin batera segurtasun eta bizikidetzeta mahaia martxan jartzea eskatzen det eta horri buruzko Ordenantza bat idaztea.

Alkatea

Urtarrilaren 1ean udaletxera sartu ziren eta kalteak egin zituzten. Mutiko batek gertaerak aitortu zituen. Bilera bat egin nuen berarekin. Egin zutenaren ondorioendatik ukituta zegoen. Berrito hitz egitekotan geratu ginen. Oraindik ezin izan dut bere abokatua lokalizatu.

Sukia

Guk horren berri Facebook bidez jakitea ez da onargarria. Egokiena guri deitzea zen. Ez zen egokia izan Alkateak beraiekin zuen bilera sartzan ez uztea. Beraien inizatiba izan zen eta ez da onargarria bilera bakar batekin egin izana. Gainera alkateak beraiekin zuen bilera atzeratu egin zuen.



## Alkatea

Ez nuen bilera atzeratu. Berehala deitu zitzaien. Nire agenda administrariak kudeatzen du. Bilera ez zen epaitegi bat. Nik zehazki mutiko horrekin hitz egin nahi nuen.

## Eguren

Mutiko horien senitartekoekin egon naiz. Baldarkeria edo bihurrikeria bat egin zuten. Zer egingo du Udalak? Beraiekin haserretu egin naiz baina aitortza horrek gaia konpontzera eraman behar gaitu. Akordio batera iristeko aurrekariak daude kartzela saihestuz. Ez genuke zigorrik eskatu behar penalean, argi utzi behar genieke egin zutenaren ondorioak beraien hain hartu behar dituztela.

## Gonzalez

Elkarrizketaren bidetik joateko beharrezkoa iruditzen zitzaiola inplikaturako zazpi gazteek barkamena eskatzea, sortutako kalteak ordaintzea eta erantzukizun sozialen bat betetzeko konpromisoa hartzea.

## Sukia

Udaletxera bi etorri ziren eta hirugarrenak etorri nahi izan zuen. Taldea zen alkatearekin hitz egin nahi zuena. Salaketarik bazegoen jakin baino lehen deitu zuten beraiek.

## Idazkaria

Ondasun publikoak hondatzen dituenak ordaindu egin behar ditu. Udala akusazio partikular gisa aurkezten den ala ez, erabaki hori librea da.

## Gonzalez

Bide penala saihestea da bere irizpidea, baina betiere gazteek barkamena eskatzen badute beraien ekintzagatik.

## Dubreuil

Orain kasu honetarako erabakitzen denak etorkizunekora lotzen gaitu.

## Eguren

Beste kasu batzuetan aukera bat baino gehiago eman dugu, delitu larriagoekin.



## Alkatea

Mutiko honen abokatuarekin hitz egingo dut eta berriro deituko zaituztet bilera egiteko. Lortzen dudanean, eskulturaren eta eskaileretako kalteen zenbaketa ekarriko dizuet.



## 5.- Hondakinen kudeaketa.

### Alkatea

Zozketa egiteko zerrendak prest daude. 38 pertsonak eskatu dute parte hartzea.

Ondorengo irzpidetako hau adostu da:

Izen emandako 38 pertsonen artean zozketak bermatu behar du 29 urtez azpiko pertsona bat eta 70 urtetik gorako beste bat ordezkari gaitza egotea, eta beste bi egotea gainerako adin-tartean (hau da, 29 eta 70 urte artean), betiere parekotasuna bermatzen dela.

Zozketa asteazkenean izango da.



## 6.- Norberak leharkean.

Ez da izan.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.